

JARDUERA-PLANA (22. ASTETIK KURTSO AMAIERARA)

Ekoizpen eta Fabrikazio Sistemak

- Ingenieritza Elektroniko Industrial eta Automatika Gradua
- Ingenieritza Mekanikoan Gradua
- Ingenieritza Kimiko Industrial

2020-04-15

Irakasgaiaren koordinatzailea
Francisco Javier García de Amézaga

ARGIBIDEA

1. Teoria-praktika edukiak
2. Metodologia
3. Ebaluazio sistemak
4. Ohiko eta ezohiko deialdia: orientabideak

Jarduera-plan honek 19/20 kurtsoko Irakaskuntza Gida ordezkutzen du.

1. TEORIA-PRAKTIKA EDUKIAK

Dozentziaren egoera ez presentziala kontutan hartuz, 22. astetik kurtso amaierara jorratuko diren edukiak:

- Galdaketa prozesuak
- Mekanizaketa (falta diren gaiak)
- Materialaren konformaketa plastikoaren prozesuak.

2. METODOLOGIA

Eredu presentzialesan irakasgaiak klase magistral (3 ordu/aste) eta gela praktikak dauzka (ordu 1/aste).

Irakas-periodoa amaitu baino lehenago geratzen diren astetan, klase magistraletako atazak mantentzen saiatuko gara irakurketa eta eduki teoriko berezien ikasketaren bitartez. Hau, egela foroetan eta korreo bidezko erantzunekin bermatuko da. Gelako praktikei dagokienez egelan proposatuko dira jaso beharreko ariketak.

2.1. KLASE MAGISTRAL ETA GELA PRAKTIKAK

Klase magistralak, egela plataforma birtualera igotako artxiboetan ikasleek egin beharreko irakurketengatik ordezkatu dira. Artxibo hauek, irakasgaiak irakasleak klasean azaldu behar zituenaren berdinak dira. Behar duten informazioa zein diapositiba heinean dagoen esango zaie. Eta egin eta barneratzeko denbora tarte bat eskaintzen zaie. Hala ere, egela foro eta posta elektronikoen bidez azalpen periodikoak egingo dira.

Gelako praktikak egela plataformaren zehar proposatutako ariketen bitartez ordezkatu dira, egela plataforma berera eskaneatuta igo beharko dira ariketa ebatziak. Ataza hauei entregatzeko epeak finkatuko zaizkie. Periodikoki egela foro eta posta elektronikoen bidez dudak argituko dira.

2.2. SEMINARIOAK

Irakasgai honek ez ditu seminariorik.

2.3. LABORATEGI PRAKTIKA ETA ORDENADORE PRAKTIKAK

Irakasgai honek ez ditu ez laborategiko praktikak, ezta ordenagailukoak ere.

3. EBALUAZIO SISTEMA

Ebaluazioak irakaskuntza gidaliburuan ezarri bezala mantenduko dira.

✓ Amaierako ebaluazioa

Ikaslea idatzizko azterketa finalera aurkeztuko da, bai deialdi arrunt zein ez-ohizkoan. Azterketa modalitate honetan eduki guztiak sartu daitezke (bai teoriko zein praktikoak), bertan 10-etik 5 puntuko puntuaketa minimoa lortu beharko da. Amaierako nota azterketan lortutakoa izango da.

✓ Ebaluaketa mistoa

Banatuta ebaluatuko dira:

- a) Garatu beharreko idatzizko froga: 70%
- b.1) Ariketak, kasuak edo buruketak: 15%
- b.2) Talde edo bikotekako lanak: 15%

4. OHIKO ETA EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTABIDEAK

Ebaluazio ez-presentziala, finala eta jarraia, irakasgaiaren irakaskuntza gidaliburuak zioen bezala izango dira, bai ohiko zein ez-ohiko deialdian.

Azterketa eGela-ren bitartez “ataza” formatuan egingo da. Azterketa egiteko formatu eta argibideak azterketa baino astebete lehenago jakinaraziko da.